



MAREA URDINA

ETA GU ZER GAUDE PREST EGITERA INKLUSIOAREN ALDE?

IRAURGI IKASTETXEAREN KONPROMEZUA

Gure gizartea anitza den bezala, gure Ikastetxea ere, anitza da. Horren adibide dira gure hezkuntza komunitatean ditugun familia eredu desberdinak, desgaitasun oro dituzten pertsonak, baliabide urrikoak, sinesmen desberdinetako herritarrak nahiz atzerritarrak errespetatu eta beraien hazkuntzan bidelagun izatea da gure ikastetxeko helburu nagusia. Horren adierazle da gure ikastetxeko aurtengo leloa “Gu Geu izateko bidea”.

Aniztasun horri guztiari lekua egin behar zaio eta gu, ikastetxeko partaideok, gure egunerokotasunean inklusibitateari erantzuna eta indarra ematen saiatzen gara.

Eguneroko jardueraz gain, ekintza anitz burutu ditugu bi ikasturte hauetan:

17-18 ikasturtean

- Geletan sentsibilizazio saioak, adinari eta taldeko aniztasunari egokituak.
- Ikastetxe osoari egitasmoaren berri eman eta ekintza sinbolikoa egin.
- Honako testua sortu eta ekitaldian irakurri. ***testua atxikituta.**
- Ekitaldirako ikastetxea girotu eta apaindu.

18-19 ikasturtean

- Autismoaren Nazioarteko Egunaren harira, geletan sentsibilizazio saioak, adinari eta taldeko aniztasunari egokituak. Ikastetxean ezaugarri hauek dituzten ikasleak izanik, berauek gonbidatu ziren taldean sentsibilizazio saioan parte hartzera.
- Ekitaldirako ikastetxea urdindu.
- Iraurgi Asteari bukaera emateko denen artean Marea Urdinaren kantarekin dantzatu.

Etorkizunean ere, gure konpromezua ildo berdinetik inklusibitatearen alde eta zuekin lankidetzan estuan jarraitzea izango da. Aldi berean, sinesmen hori gizartera zabaltzea izango da gure erronka nagusia. Horretarako argi dugu gure ikasleak norbanako oso eta bakar moduan hazi eta hezi behar ditugula, gizarteko partaide aktibo eta aberasgarriak izateko.

Testua:

“Autismoa, ez da gaixotasun bat, buruko nahasmen bat baizik. Hori dela eta ez da sendatzen.

Nire egunerokoa, zuen guztion antzekoa da baina, eguna lasai igarotzeko, laguntza txiki batzuk behar izaten ditut. Esaterako piktogramak, argazkiak dituzten txarteltxo batzuk dira, eta askoz ere errazago ulertzen dut nire eguneroko ordutegia beraien laguntzaz.

Ahoz adierazitakoa ulertzeko zailtasunak izan ditzaket eta momentuan momentukoa azaltzea ezinbestekoa da niretzat. Horrela, nire buruan dena ordenatuta izaten dut. Nire buruan, informazioa kutxa ezberdinetan bezala sailkatuta daukat. Askotan kutxa bat bestearekin lotzea asko kostatzen zait, horregatik egiten zait hain zaila zuen komunikatzeko modua; DESORDEN handi bat delako niretzat.

Zuei kotxeekin eta panpinekin jolastea gustatzen zaizuen bezala, niri ere asko gustatzen zait. Baina niretzat jolas ezberdina izan daiteke. Nik beraien tamaina eta koloreen arabera ilaran jartzen ditut eta puzzleak egiteko sekulako zaletasuna dut. Ditugun interesak berdinak izan daiteke baina modu ezberdin batean erabiliko ditut, baina lasai!! Ez da ezer gertatzen!

Gure inguruan dauden, zarata, mugimendu askok urduri jartzen naute. Horregatik, nire fantasia munduan sartzen naiz eta bertan lasai egotea gustatzen zait. Zarata handia edo jende asko dagoen lekuetan egotea oso zaila egiten zait, baina patxadaz eta lasaitasunez hartu ez gero nik ere lortu dezaket. Esaterako, asko urduritzen banaiz, belarriak tapa ditzaket momenturen batean, horrela zarata gutxiago entzungo baitut. Ezagutzen ez dudan leku berri batera joan behar badut, hain maitea dudan panpina nirekin emango dut, horrek segurtasuna ematen baitut.

Aldaketei beldur handia handia diet baina handitzen noan heinean nik ere ikasiko dut, zuek guztiok bezala.

Guztiok desberdin berdinak gara eta hori da politena. Gizartean ditudan hesiak apurtzen lagundu iezadazu, batzuetan adieraztea kostatzen zaidan arren, zuen lagun izan nahi baitut”.